



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

7/2019 DEKRETUA, martxoaren 7koa, Lehendakariarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua aurrez onartzen duena.

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari ekiteko agindu zen, Lehendakariaren urriaren 19ko 16/2018 Dekretuaren bidez.

Aipatu dekretuan, gaia arautzeko bi aukera hauek kontuan hartzeko planteatu zen: arau independente bat idaztea, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aldatzea, zehatzago, haren VII. Kapituluak aldatzea, orain indarrean dauden arauak, nazioarteko, Europako eta Estatuko arauetara egokitzeko. Aurreratu zen, orobat, legea aldatzeko arau bat onartzea erabakiz gero, bazitekeela arau horretan jasotako beste agindu batzuk ere egokitu behar izatea.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidali zen 16/2018 Dekretua, urriaren 19koa, Lehendakariarena, aipatu aurreproiektua egite eta izapidetze aldera.

Planteatutako bi aukerak aztertu ondoren, koherenteagozat jo da, autonomia-erkidego honen ibilbide historikoari jarraitzearen alde eginez, gaia gaur egun indarrean dagoen (otsailaren 18ko 4/2005) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen barruan sartzen jarraitzea. Izan ere, lotura bereizina dago emakumeen aurkako biolentziaren eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdinkeraren artean.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Horregatik guztiagatik, egindako aurreproiektua ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua aurrez onartzea.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

Bigarrena.— Legearen aurreproiektua egiteko prozedura jarraitzeko agintzea, Lehendakariaren urriaren 19ko 16/2018 Dekretuan eta abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako izapideen arabera, eta Gobernu Kontseiluak onartze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 7a

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.